Kontratuen erregistroa 2023ko martxoan

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2023ko martxoan 43.045 pertsona kontratatu dira, joan den urteko martxoan baino 9.517 gutxiago (% 18,1eko beherakada). Otsailarekin alderatuta, hazi egin da kontratatutako pertsonen kopurua; 5.454 pertsona gehiago kontratatu dira,% 14,5eko gorakada, hain zuzen ere.

• SEXUA

Hilabete honetan 21.722 gizonezko eta 21.323 emakumezko kontratatu dira. Aurreko urteko datuarekin alderatuta, bai emakume zein gizonen kontratazioa murriztu egin da; gizonezkoen kasuan, 4.765 gizon gutxiago kontratatu dira eta emakumeen kasuan, 4.752 gutxiago.

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 36,39 da, eta baxuagoa da gizonena (36,04) emakumezkoena baino (36,75). Arabakoak dira kontratatutako pertsona gazteenak (35,84), eta Bizkaikoak, aldiz, zaharrenak (36,90).

Kontratatutako langile gazteenak, batez beste, laguntza teknikariak dira; horien batez besteko adina 33,55 urtekoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza lanetan kontratatutakoak dira; batez besteko adina 44 urtetik gorakoa da. Lanaldi partzialean kontratatutakoak lanaldi osoan kontratatutakoak baino gazteagoak dira (35,48 eta 36,88 urte, hurrenez hurren). Aldea haundiagoa da sexuaren arabera; lanaldi partzialeko emakumeak zaharragoak dira 36,44 urte baitituzte gizonezkoen 33,61n aurrean. Kontratuaren iraupenaren inguruan, aldi baterako kontratatuko pertsonak kontratu mugagabeak izan dituztenak baino zaharragoak dira (36,41 vs 36,35).

• JATORRIA

2022ko abenduan kontratatutako pertsonen % 20,2k atzerriko nazionalitatea dute; joan den urteko ehunekoa baino 2,8 puntu altuagoa. Kontratatutako pertsona atzerritarren % 53,3k Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, % 13,9k Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, % 10ek Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa, % 7,6k Europako Erkidegokoa ez den herrialde batekoa, eta, azkenik, % 6,6ko portzentaia dute bai Europako Erkidegoko herrialde batetik etorritakoek zein Asiatik etorritakoek ere. Bertakoak atzerritarrak baino zaharragoak dira (36,41 eta 36,30 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Afrika iparraldeko herrialde batetik heldutako pertsonak dira gazteenak (35,48 urte) eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batetik heldutakoak, zaharrenak (37,89 urte).

Azken hilabeteko datuei erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan hazi da kontratatutako pertsonen kopurua. Gehien hazi den atzerritar taldea, balio absolutuetan, Latinoamerikako herrialderen batetik etorritakoena izan da: 905 pertsona gehiago kontratatu dira (% 24,3ko gorakada); balio erlatiboetan, aldiz, igoera handiena Asiatik etorritako taldean gertatu da, % 47,8 hazi baita (171 pertsona gehiago).

Azken urteari erreparatuz, kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan murriztu da kontratatutako pertsonen. Murrizketa handiena, balio absolutu zein erlatiboetan, Europar Erkidegoko ez den herrialdeko taldeak jasan du; 251 pertsona gutxiago eta % 27,6ko jatsiera.

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 41,3k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, %21,8k batxilergoko ikasketak egin ditu, % 19,1ek unibertsitatekoak eta % 17,2k Lanbide Heziketako ikasketak.

Hileko erreferentzian, profil guztietako pertsonen kontratazioak egin du gora. Gehien hazi direnak, balio absolutuetan, derrigorrezko ikasketak dituztenak izan dira (+2.205 pertsona, % 14,2ko gorakada); balio erlatiboetan, aldiz, LHko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioak izan du gorakada nabarmenena (% 21,4ko igoera, 1.300 pertsona gehiago).

Urteko erreferentzian, ikasketa mota guztien kontratazioa murriztu egin da. Beherakada handiena, balio absolutu zein erlatiboetan, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen kontratazioan gertatu da (-4.841 pertsona gutxiago kontratatu dira, % 21,4ko murrizketa).

KONTRATUEN KOPURUAK

2023ko martxoan zehar kontratazio kopurua 60.744 izan da EAEn, horietatik 16.787 (% 27,6) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabeen ehunekoa handia izan da azken urteetako bilakaerarekin alderatuta. Datu honek, 2022ko joera berresten du; iaz onartutako lan-erreformaren isla da, eta, badirudi, lege hau emaitzak lortzen ari dela ildo horretan. Kontratu mugagabea izan duten gizonezkoen kopurua haundiagoa da emakumezkoen aldean (% 29,5 eta % 25,8, hurrenez hurren).

Kontratazioa % 20,3 hazi da aurreko hilabetearekiko (10.253 kontratu gehiago); aurreko urtearekin alderatuta, berriz, murriztu egin da (% 15,2 eta 10.925 kontratu gutxiago).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du jarduera gehienetan. Igoera handienak ostalaritzan (+1.760), manufaktura-industrian (+1.715) eta merkataritzan (+1.598) izan dira. Aitzitik, jaitsierak energian (- 9) eta higiezinen iharduerretan (-4) baino ez dira gertatu.

Iazko datuekin alderatuta, kontratazioak behera egin du jarduera gehienetan. Jaitsierarik nabarmenenak osasun-jardueretan (-2.306), ostalaritzan (-1.885) eta janarian (-1.210) izan dira. Aldiz, gehien hazi diren jarduerak administrazio publikoa (+303) eta finantzak (+88) dira..

• LANBIDEA

Hil arteko erlazioan, kontratazioak gora egin du lanbide guztietan. Balio absolutuetan, kontratazioa zerbitzuen kualifikatuen profilean igo da gehien (+3.373, % 23,3ko igoera); balio erlatiboetan, igoerarik handiena zerbitzuetako kualifikatuen profilean gertatu da, % 33,3ko hazkundearekin (+65 kontratu).

Iazko hilabete beraren aldean, kontratazioak profil guztietan egin du behera, lehen sektoreko kualifikatuen kasuan izan ezik, 38 kontratu gehiago izan baitira (% 17,1 gehiago). Balio absolutuetan, ez-kualifikatuen profilean jaitsi da gehien (-3.358, % 17,5 gutxiago); balio erlatiboetan, berriz, administrazio-enplegatuen profilean jaitsi da gehien, % 28,4ko jaitsierarekin (-1.385 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, aurreko hilabeteetan bezala, kontratu mugagabeen portzentaia handia nabarmendu behar da, 2023ra arte % 10etik behera egon ohi baitziren. Tasa horiek eta kontratazioen jaitsierek pentsarazten digute lan-erreformak bere fruituak ematen dituela kontratu mugagabeen sendotasuna handitzerakoan; izan ere, historikoki, urtean zehar kontratu mugagabeen kopuru esanguratsu bat sinatu arren, ez zuten lortzen aldi baterako kontratua zuten okupatuen kontratu-harremana finkatzea.

2023ko martxoan sinatutako kontratuen % 35,6 lanaldi partzialekoak dira, % 46,9 emakumeen kasuan eta % 24 gizonenan. Kontratazio mota horren arazorik handiena da, gehienbat, nahigabekoa dela, eta agerian uzten du ezarritako kontratu-harremanaren kalitate eskasa. Kontratu mugagabeen % 31,9 lanaldi partzialekoak dira.

Honako hauek dira lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak: ostalaritza (% 65,2), beste zerbitzuak (% 54,5) eta hezkuntza (% 47,9). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioan gehien izan duen profila zerbitzuetako langileena izan da (% 56,1), eta gutxien, lehen sektoreko kualifikatutako langileena (% 9,6).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoei dagokionez, sinatutako kontratuen lanpostuen % 18,2 Araban dago, % 47,9 Bizkaian eta gainerako % 32,8 Gipuzkoan.

Hilabete honetan, Araban 1.861 kontratu gehiago sinatu dira (% 20,3ko igoera); Bizkaian 4.159 kontratu gehiago (% 16,7 gehiago) eta Gipuzkoan 4.233 kontratu gehiago (% 25,9 gehiago).

Aurreko urtearen aldean, Araban 1.870 kontratu gutxiago sinatu dira; Gipuzkoan % 8,2 gutxiago (1.852 kontratu gutxiago) eta Bizkaian 7.202 gutxiago; azken hau izan da erlatiboki beherakada handiena jasan duen lurraldea (% 18,9ko jaitsiera).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2023ko martxoan sinatutako kontratuen % 26 aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen % 35,6 horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen % 16,3 bakarrik egin du ABLE batek.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak % 47,2 hazi dira; 2022ko martxoarekin alderatuta, % 6,7koa izan da hazkundea.



		Mar-2023	Ots-2023	Mar-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	16.787	13.797	15.401	2.990	21,67	1.386	9,0
	Aldi baterakoa	43.957	36.694	56.268	7.263	19,79	-12.311	-21,9
	Guztira	60.744	50.491	71.669	10.253	20,31	-10.925	-15,2
	Mugagabeen %	27,6%	27,3%	21,5%	0,31		6,15	
Sexua	Gizona	29.938	24.347	35.039	5.591	22,96	-5.101	-14,6
	Emakumea	30.806	26.144	36.630	4.662	17,83	-5.824	-15,9
	Guztira	60.744	50.491	71.669	10.253	20,31	-10.925	-15,2
	Emakumeen %	50,7%	51,8%	51,1%	-1,07		-0,40	
Mugagabea	Gizona	8.846	7.202	7.800	1.644	22,83	1.046	13,4
	Emakumea	7.941	6.595	7.601	1.346	20,41	340	4,5
	Guztira	16.787	13.797	15.401	2.990	21,67	1.386	9,0
Aldi baterakoa	Gizona	21.092	17.145	27.239	3.947	23,02	-6.147	-22,6
	Emakumea	22.865	19.549	29.029	3.316	16,96	-6.164	-21,2
	Guztira	43.957	36.694	56.268	7.263	19,79	-12.311	-21,9
Guztira	Gizona	29.938	24.347	35.039	5.591	22,96	-5.101	-14,6
	Emakumea	30.806	26.144	36.630	4.662	17,83	-5.824	-15,9
	Guztira	60.744	50.491	71.669	10.253	20,31	-10.925	-15,2
Mugagabeen tasa	Gizona	29,5%	29,6%	22,3%	-0,03		7,29	
	Emakumea	25,8%	25,2%	20,8%	0,55		5,03	
	Guztira	27,6%	27,3%	21,5%	0,31		6,15	
Lanaldi partziala	Mugagabea	5.364	4.598	5.810	766	16,66	-446	-7,7
	Aldi baterakoa	16.273	13.320	23.320	2.953	22,17	-7.047	-30,2

Kontratuen erregistroa 2023ko martxoan

		Mar-2023	Ots-2023	Mar-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Beste batzuk	39.107	32.573	42.539	6.534	20,06	-3.432	-8,1
	Guztira	60.744	50.491	71.669	10.253	20,31	-10.925	-15,2
	LP tasa	35,6%	35,5%	40,6%	0,13		-5,03	
Lanaldi partziala	Gizona	7.200	5.726	9.971	1.474	25,74	-2.771	-27,8
	Emakumea	14.437	12.192	19.159	2.245	18,41	-4.722	-24,6
	Guztira	21.637	17.918	29.130	3.719	20,76	-7.493	-25,7
	Gizonen tasa	24,0%	23,5%	28,5%	0,53		-4,41	
	Emakumeen tasa	46,9%	46,6%	52,3%	0,23		-5,44	
	Tasa guztira	35,6%	35,5%	40,6%	0,13		-5,03	
Prestakuntza-koak	Prestakuntzakoak	37	28	458	9	32,14	-421	-91,9
	Beste batzuk	60.707	50.463	71.211	10.244	20,30	-10.504	-14,8
	Guztira	60.744	50.491	71.669	10.253	20,31	-10.925	-15,2
	Prestakuntzakoak (%)	0,1%	0,1%	0,6%	0,01		-0,58	
L. historikoa	Araba	11.038	9.177	12.908	1.861	20,28	-1.870	-14,5
	Bizkaia	29.102	24.943	36.305	4.159	16,67	-7.203	-19,8
	Gipuzkoa	20.604	16.371	22.456	4.233	25,86	-1.852	-8,2
	EAE	60.744	50.491	71.669	10.253	20,31	-10.925	-15,2
Gizonak	Lehen sektorea	422	403	460	19	4,71	-38	-8,3
	Erauzketa-industriak	19	7	7	12	171,43	12	171,4
	Manufaktura-industriak	6.514	5.436	7.633	1.078	19,83	-1.119	-14,7
	Energia	11	12	8	-1	-8,33	3	37,5
	Ura	261	221	395	40	18,10	-134	-33,9
	Eraikuntza	2.100	1.901	2.722	199	10,47	-622	-22,9
	Merkataritza	3.102	2.294	3.525	808	35,22	-423	-12,0
	Garraioa	4.133	3.058	4.312	1.075	35,15	-179	-4,2
	Ostalaritza	3.356	2.657	4.218	699	26,31	-862	-20,4
	Informazioa eta komunikazioa	1.511	1.100	1.626	411	37,36	-115	-7,1
	Finantzak eta aseguruak	175	77	122	98	127,27	53	43,4
	Higiezinen sektorea	29	22	54	7	31,82	-25	-46,3
	Zientifikoak eta teknikoak	866	801	1.433	65	8,11	-567	-39,6
	Administraziokoak	2.606	1.980	2.864	626	31,62	-258	-9,0
	Administrazio publikoa	390	365	358	25	6,85	32	8,9
	Hezkuntza	1.146	1.244	1.306	-98	-7,88	-160	-12,3
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.337	1.274	1.718	63	4,95	-381	-22,2
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.403	1.053	1.687	350	33,24	-284	-16,8
	Beste zerbitzu batzuk	451	372	490	79	21,24	-39	-8,0
	Etxeetako jarduerak	105	69	100	36	52,17	5	5,0
	Lurraldez kanpoko erakundeak	1	1	1	0	0,00	0	0,0
	Guztira	29.938	24.347	35.039	5.591	22,96	-5.101	-14,6
Emakumeak	Lehen sektorea	29	36	38	-7	-19,44	-9	-23,7
	Erauzketa-industriak	4	2	3	2	100,00	1	33,3
	Manufaktura-industriak	2.411	1.774	2.318	637	35,91	93	4,0
	Energia	9	17	6	-8	-47,06	3	50,0
	Ura	41	35	52	6	17,14	-11	-21,2
	Eraikuntza	182	131	189	51	38,93	-7	-3,7
	Merkataritza	3.808	3.018	4.595	790	26,18	-787	-17,1
	Garraioa	877	706	1.150	171	24,22	-273	-23,7
	Ostalaritza	5.698	4.637	6.721	1.061	22,88	-1.023	-15,2
	Informazioa eta komunikazioa	1.105	791	1.014	314	39,70	91	9,0
	Finantzak eta aseguruak	206	125	171	81	64,80	35	20,5
	Higiezinen sektorea	45	56	94	-11	-19,64	-49	-52,1
	Zientifikoak eta teknikoak	907	876	1.526	31	3,54	-619	-40,6
	Administraziokoak	3.478	2.764	4.216	714	25,83	-738	-17,5
	Administrazio publikoa	757	504	486	253	50,20	271	55,8
	Hezkuntza	3.048	2.873	3.257	175	6,09	-209	-6,4
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	5.206	5.181	7.131	25	0,48	-1.925	-27,0

Kontratuen erregistroa 2023ko martxoan

		Mar-2023	Ots-2023	Mar-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.033	823	1.066	210	25,52	-33	-3,1
	Beste zerbitzu batzuk	762	596	808	166	27,85	-46	-5,7
	Etxeetako jarduerak	1.197	1.197	1.788	0	0,00	-591	-33,1
	Lurraldez kanpoko erakundeak	3	2	1	1	50,00	2	200,0
	Guztira	30.806	26.144	36.630	4.662	17,83	-5.824	-15,9
Guztira	Lehen sektorea	451	439	498	12	2,73	-47	-9,4
	Erauzketa-industriak	23	9	10	14	155,56	13	130,0
	Manufaktura-industriak	8.925	7.210	9.951	1.715	23,79	-1.026	-10,3
	Energia	20	29	14	-9	-31,03	6	42,9
	Ura	302	256	447	46	17,97	-145	-32,4
	Eraikuntza	2.282	2.032	2.911	250	12,30	-629	-21,6
	Merkataritza	6.910	5.312	8.120	1.598	30,08	-1.210	-14,9
	Garraioa	5.010	3.764	5.462	1.246	33,10	-452	-8,3
	Ostalaritza	9.054	7.294	10.939	1.760	24,13	-1.885	-17,2
	Informazioa eta komunikazioa	2.616	1.891	2.640	725	38,34	-24	-0,9
	Finantzak eta aseguruak	381	202	293	179	88,61	88	30,0
	Higiezinen sektorea	74	78	148	-4	-5,13	-74	-50,0
	Zientifikoak eta teknikoak	1.773	1.677	2.959	96	5,72	-1.186	-40,1
	Administraziokoak	6.084	4.744	7.080	1.340	28,25	-996	-14,1
	Administrazio publikoa	1.147	869	844	278	31,99	303	35,9
	Hezkuntza	4.194	4.117	4.563	77	1,87	-369	-8,1
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.543	6.455	8.849	88	1,36	-2.306	-26,1
	Arte- eta jolas-jarduerak	2.436	1.876	2.753	560	29,85	-317	-11,5
	Beste zerbitzu batzuk	1.213	968	1.298	245	25,31	-85	-6,5
	Etxeetako jarduerak	1.302	1.266	1.888	36	2,84	-586	-31,0
	Lurraldez kanpoko erakundeak	4	3	2	1	33,33	2	100,0
	Guztira	60.744	50.491	71.669	10.253	20,31	-10.925	-15,2
Gizonak	<>	0	0	3	0		-3	-100,0
	Zuzendaritza	98	91	117	7	7,69	-19	-16,2
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	3.247	2.977	3.481	270	9,07	-234	-6,7
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	3.839	2.749	3.640	1.090	39,65	199	5,5
	Administrazioko langileak	1.156	902	1.843	254	28,16	-687	-37,3
	Zerbitzuetako kualifikatuak	5.831	4.573	7.037	1.258	27,51	-1.206	-17,1
	Oinarrizko kualifikatuak	237	188	220	49	26,06	17	7,7
	Industriako kualifikatuak	3.334	3.065	4.760	269	8,78	-1.426	-30,0
	Operadoreak	3.918	3.169	4.092	749	23,64	-174	-4,3
	Kualifikatu gabeak	8.278	6.633	9.846	1.645	24,80	-1.568	-15,9
	Guztira	29.938	24.347	35.039	5.591	22,96	-5.101	-14,6
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	64	70	66	-6	-8,57	-2	-3,0
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	5.304	4.813	5.857	491	10,20	-553	-9,4
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	2.350	2.202	2.860	148	6,72	-510	-17,8
	Administrazioko langileak	2.334	1.839	3.032	495	26,92	-698	-23,0
	Zerbitzuetako kualifikatuak	11.997	9.882	14.348	2.115	21,40	-2.351	-16,4
	Oinarrizko kualifikatuak	23	7	2	16	228,57	21	1050,0
	Industriako kualifikatuak	443	325	480	118	36,31	-37	-7,7
	Operadoreak	685	660	589	25	3,79	96	16,3
	Kualifikatu gabeak	7.606	6.346	9.396	1.260	19,86	-1.790	-19,1
	Guztira	30.806	26.144	36.630	4.662	17,83	-5.824	-15,9
Guztira	<>	0	0	3	0		-3	-100,0
	Zuzendaritza	162	161	183	1	0,62	-21	-11,5
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	8.551	7.790	9.338	761	9,77	-787	-8,4
	Teknikariak eta laguntza ema-	6.189	4.951	6.500	1.238	25,01	-311	-4,8

Kontratuen erregistroa 2023ko martxoan

		Mar-2023	Ots-2023	Mar-2022	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	teko profesionalak							
	Administrazioko langileak	3.490	2.741	4.875	749	27,33	-1.385	-28,4
	Zerbitzuetako kualifikatuak	17.828	14.455	21.385	3.373	23,33	-3.557	-16,6
	Oinarrizko kualifikatuak	260	195	222	65	33,33	38	17,1
	Industriako kualifikatuak	3.777	3.390	5.240	387	11,42	-1.463	-27,9
	Operadoreak	4.603	3.829	4.681	774	20,21	-78	-1,7
	Kualifikatu gabeak	15.884	12.979	19.242	2.905	22,38	-3.358	-17,5
	Guztira	60.744	50.491	71.669	10.253	20,31	-10.925	-15,2
ABLE	Gizonak	7.728	5.368	7.276	2.360	43,96	452	6,2
	Emakumeak	3.476	2.245	3.228	1.231	54,83	248	7,7
	Guztira	11.204	7.613	10.504	3.591	47,17	700	6,7
Pertsona-kopurua	Gizonak	21.722	18.619	26.487	3.103	16,67	-4.765	-18,0
	Emakumeak	21.323	18.972	26.075	2.351	12,39	-4.752	-18,2
	Guztira	43.045	37.591	52.562	5.454	14,51	-9.517	-18,1
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	17.776	15.571	22.617	2.205	14,16	-4.841	-21,4
	Batxilergoa	9.374	7.903	11.481	1.471	18,61	-2.107	-18,4
	LHko ikasketak	7.384	6.084	8.453	1.300	21,37	-1.069	-12,6
	Unibertsitate-ikasketak	8.217	7.762	9.608	455	5,86	-1.391	-14,5
	Atzerritarra	8.675	7.219	9.155	1.456	20,17	-480	-5,2
	Bertakoa	34.370	30.372	43.407	3.998	13,16	-9.037	-20,8
	<>	33	32	34	1	3,13	-1	-2,9
	Aberrigabea	48	41	48	7	17,07	0	0,0
	Europako Erkidegoa	574	468	657	106	22,65	-83	-12,6
	Erkidegokoa ez den Europa	657	631	908	26	4,12	-251	-27,6
	Txina	112	66	102	46	69,70	10	9,8
	Japonia	4	2	3	2	100,00	1	33,3
	Asiako beste herrialde bat	524	401	498	123	30,67	26	5,2
	Saharaz hegoaldeko Afrika	868	787	950	81	10,29	-82	-8,6
	Afrikako iparraldea	1.209	1.053	1.292	156	14,81	-83	-6,4
	Ipar Amerika	17	14	13	3	21,43	4	30,8
	Erdialdeko eta Hego Amerika	4.626	3.721	4.650	905	24,32	-24	-0,5
	Ozeania	3	3	0	0	0,00	3	
	Atzerritarrak guztira	8.675	7.219	9.155	1.456	20,17	-480	-5,2